

OLGA

Gidoia

190 hitz

Olgak zortzi urte ditu. Familiarekin bizi da Errusiako hiriburuan: Moskuko auzo batean.



Oлга, Dantza Klasikoko Eskola Errusiarrean balleta ikasten ari da, eta ikasketak amaitzen dituenean, ballet talde profesional batean sartu ahal izango da.

Julia bere ballet taldeko laguna da eta balleteko pausoak elkarrekin ikastea gustatzen zaie. Hitz egitea ere gogoko dute, batez ere dantzaz eta gustuko janariez.

Olgaren balleteko oinetakoak ehunezkoak dira eta oso erraz hondatzen dira, horregatik berriak behar izaten ditu bi astetik behin.

Olgaren aitak banku batean egiten du lan eta ama maistra da. Iluntzeetan Olgari laguntzen diote eskolako lanak egiten eta asteburuetan irakurri eta dametan jolasten dute.



Olgak aita eta amari laguntzen die etxeko lanak egiten eta gehien gustatzen zaiona aspiragailua pasatzea da.



Olgaren janaririk gogokoena "blini" izeneko opiltxoak dira: irina, esnea, legamia eta arrautzak behar dira opiltxo hauek egiteko. Labean edo zartaginean egin ahal dira eta beteta edo bete gabe jan ahal dira.

Olgak tea edaten du otordu guztietan.

Soinekoak oso gogoko ditu eta galtzak ez zaizkio batere gustatzen, ez bakeroak ezta bestelakoak ere.

Neguan hotz izugarria egiten du Moskun, eta elurra ere bai askotan. Horregatik, kalera atzeratzen denean, berokia eta botak janzten ditu bero-bero egoteko.



Ni bezalako haurrak, Barnabas eta Anabel Kindersley (moldatuta)